

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko abenduaren 22a. VIII. urtea. 2.329. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Aritz Muruak denboraldi bikaina egin du bere kart autoarekin

Hamar urteko abaltzisketarrak Euskadiko Kart Txapelketako hirugarren postua eskuratu du, bere estreinako denboraldian ◊4



Murua gaztetxoa bere kart autoa ondoan duela. E.MAIZ

→ **Ekoizleei egindako omenaldia.** Larunbatero-larunbatero Tolosako Zerkausian baserriko produktuak saltzen dituzten ekoizleei ateratako argazkiak bildu ditu Targazki taldeak Aranburu jauregian. Erakusketaren helburua «baserriarren lanari merezi duen garrantzia eta duintasuna ematea» dela diote antolatzaileek. ◊5

Patxi Zeberio Erremontista

«lazko finala ezin izan genuen irabazi, eta nolabait arantza ateratzea lortu dut»

Elduaindarrak Binakako Erremonte Txapelketa irabazi berri du; modalitate honetan txapel gehien jantzi dituen pilotaria da ◊7

Tolosako Orfeoik Enrique Ugarte ohorezko bazkide izendatu du

Orain gutxi Leidorren eskainitako Eguberrietako kontzertuan eman zioten izendapena; orfeoiko lehendakariak jarri zion ikurra Ugarteri ◊2

Luis Mari Gartzia Tolosako Bandako zuzendaria

«Jendea bandaren emanaldi tradizionaletara bakarrik joaten da»

50 urtez Tolosako Musika Bandan aritu eta gero, otsailean hartuko du erretiroa; «nostalgia» sentitzen du atzera begiratzerakoan ◊3



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI-BULABEA

24 H..

943 694 873



Bandako kide guztientzako eredu

Carlos Garcia Razkin musikariaren omenezko gutuna.

Duela gutxi hil da musikari tolosar nabarmen bat: Carlos Garcia Razkin. Urte askotan Tolosako Musika Bandako kidea izateaz gain, zuzendariordea izatera iritsi zen, eta beste talde eta txaranga askotan aritu zen. Hainbat elkarterentzako piezak ere konposatu zituen. Familia-

ko musikari bakarra ez zen, hala ere: aita Leandrok tronpa jotzen zuen, Gerardo anaiak fliskornoa eta tronpetea, eta Luis anaiak flautina, tronpa eta tronboia. Laurak bandako kide izan ziren.

Musika Akademian hasi zuten ikasketak Felix Azurza, Felipe Bernal eta Manuel Valmasedarekin. 15 urte zituenean sartu zen bandan, 1954an, obo-

ea jotzen. Donostiako Kontserbatorioan jarraitu zituen musika ikasketak, eta Tolosako lehen ikaslea izan zen hori egiten; bertan, Ikasleen Orkestran jo zuen. Soldaduskatik itzuli zenean saxofonia ikasten hasi zen, gero bandan, txarangetan eta taldeetan jotzeko. Bandako zuzendariorde gisa (Jose Antonio Ruiz Bona zuzendari zela) hainbat

kontzertu eta dantzaldi zuzendu zituen. Plaza Berriko, Zerkau-siko eta Zumardi Txikiko dantzaldietan banda ordezkatu zuen Udal Orkestinaren sortzaileetako bat ere izan zen Garcia.

Bandaz gain, Inauterietan txaranga askotan hartu zuen parte: urte askotan zehar Pintxana, Terete eta Urdiña Txikiko kidea izan zen, eta beste txaranga batzuetan ere aritu zen laguntzen. Hainbat elkartetako piezak konposatu zituen; Sard-

naren hiletarako pieza ere bai, beste batzuen artean. Kaldere-roen konpartsa lehen zuzendaria ere izan zen Garcia.

Horrez guztiaz gain, 37 urte-tan zehar Kaxiano Iburgurenen (*Lizartzako itsua*) musikari laguntzailea izan zen Axariak taldean.

Musika Bandak beti gogoan izango du musikari on eta pertsona hobea, Bandako kide guztientzako eredu.

■ **Tolosako Musika Banda.**



Tolosako Orfeoia urtero ospatzen du Eguberrietako kontzertua. HITZA

Enrique Ugarte Tolosako Orfeoiko ohorezko bazkide izendatu dute

Pasa den larunbatean ospatu zuten Eguberrietako kontzertuan egin zuten izendatzea

I. Urkizu

Pasa den larunbatz geroztik, Tolosako Orfeoia ohorezko bi kide ditu, Enrique Ugarte musikariari ere izendapena eskaini baitio

abesbatza tolosarrak. Ainhoa Ar-teta sopranoa izan zen lehen izendapena jaso zuena.

Pasa den larunbatean, abenduaren 17an, urteroko Eguberrietako kontzertua eskaini zuen Tolosako Orfeoia, eta emanaldia probestu zuten Enrique Ugarte musikari tolosarrari izendapena jendaurrean eskaintzeko. Alazne Goikoetxea orfeoiko lehendakariak jarri zion ikurra Ugarteri, eta horrekin batera, Tolosako Orfeoiko diska ere eman zion.

Aipatzekoa da, Eguberrietako kontzertuan Mozarten Koroatze Meza interpretatu zuela abesbatza tolosarrak, Inazio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean. Ohol-tza gainean, ordea, izan zuten bestelako laguntzarik ere: Iruñeko Orquesta Concertoz gain, Mayxa Teba sopranoa, Iker Casares tenorea, Marife Nogales kontraltoa eta Jose Bernardo Alvarez baxua ere aritu ziren bakarlarri gisa.

Mozarten obraren ondoren, Orfeoia Eskolaniak hainbat gabon kantu interpretatu zituen.

Musikari eskainitako bizitza

1957an jaio zen Enrique Ugarte. Oboe, eskusoinu, harmonia eta konposaketa ikasketak burutu zituen Donostiako Goi Kontserbatorioan, eta gero, Dieter Acker irakaslearekin Konposaketa ikasi zuen Munich-eko Musikhohe-schul-en. Hainbat bekari esker Musikaren Fenomenologia eta Orkestra Zuzendaritza ikasi zituen Sergiu Celibidache maisuarekin. Hainbat orkestra zuzendu ditu, eta behin baino gehiagotan saritutakoa da.

Kontsumoaz eta biodibertsitateaz aritu dira gazteenekin

Eskola Agenda 21ean barruko ekimena da, eta eskulanean nahiz jolasen bidez helarazi dizkiete kontzeptuak haurrei

I. Urkizu

Inguruzten gaituen biodibertsitatea ezagutzeko, eta hari honi tiraz, Gabonetako kontsumoaz jabetzea izan dira, Eskola Agenda 21 ekimenaren barruan eskualdeko 5 urteko 456 ikasleek, abenduan Tolosako kultur etxean egin dutena.

Hiru ataletan banatu dituzte saioak, eta lehenengo atalean, txotxongiloen bitartez bertako biodibertsitatea landu dute, ber- rau zaintzeak duen garrantziaz

jabetzarekin batera. Usaimena ere erabili dute ikasketen prozesu honetan, eta naturak eskaintzen dizkigun usainak ezagutzeko aukera ere izan dute neska-mutilek: sagarra, limoia, ozpina, pinua eta masusta. Usain hauek egunero-koan soma ditzakegun beste batzuekin erlazioan dituzte: pirlu-leta, xaboa edo ardo ustelduarekin, esaterako.

Azkenik, hirugarren saioan, norberak etxetik ekarritako galterdiarekin, eta plastikozko tapoiekin, txotxongiloa egin dute. Modu honetara, zabor poltsan bukatzen duten materialak berrera-biltzeko dauden aukerak ezagutu dituzte, irudimena lantzearekin batera; eurek sorturiko jostailuak ere, dendakoen antzera, dibertigarriak izan daitezkeela ikusi dute gainera.

Gabonetan ere pantaila handiaz gozatzeko aukera izango dute haurrek

Haur eta gazteei begirako film gehiago eskainiko dituzte egunotan, Leidor aretoan

I. Urkizu

Eguberrietako oporrekin batera, asteroko zine eskaintza zabaldu egingo da Tolosako Leidor aretoan, gaztetxoentzat bereziki.

Sarreragatik 3,5 euro ordainduta, edo urtarrila amaierara bitarteko filmeetarako balioko duen bonuagatik 8 euro ordainduta, haurrentzako lau film izango dira

ikusgai, datozen bi asteotan. Abenduaren 26an eta 27an, *Luke eta Lucy* eskainiko dute, 17:00etan; hilaren 29 eta 30ean, *Happy feet*, ordu berean; *Olentzero eta iratxoaren jauntxoa* filma, ber- ritz, urtarrilaren 2an eta 3an izango da, 17:00etan, eta urtarrilaren 6, 7 eta 8an *El gato con botas* ikusi ahal izango da.

Oporraldiaren ostean, urtarrilaren 14an eta 15ean, *Gartxot* proiektatutako dute 17:00etan; hilaren 22an, berriz, *Vicky vikingoaren* abenturak ikusteko aukera izango da ordu berean, eta urtarrilaren 28an eta 29an, *Alvin y las ardillas* 3 filmarekin amaituko da egitaraua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Luis Mari Gartzia ◉ Musika Bandako zuzendaria

50 urtez Tolosako Musika Bandan aritu ostean, otsailean erretiratuko da Luis Mari Gartzia Artetxe. Musikari bezala lehenik, zuzendari bezala ondoren, bertatik bertara ezagutu du taldearen bilakaera.

«Herritarrek ez dute musika kulturarik»

Gorka Otaegi Tolosa

Nekez irudika daiteke kontzertu batean urduri Tolosako Musika Bandan mende erdi daraman norbait. Are gutxiago Luis Mari Gartzia Artetxe zuzendariaren ari bagara (Villabona, 1947). Hala ere, azken emanaldietan, ohiko sabeleko inurriez gain «pena eta zirra-za bereziak» sentitzen hasi dela aitortzen du. Izan ere, ate-joka du erretiroa. Otsailean hartuko du azken aldiz bandaren batuta, Inauteri aurreko kontzertuan. Atzera begiratzean «nostalgia» sentitzen duen arren, erretiroa orain arte egin izan ezin dituen gauzak egiteko aprobetxatuko du. Esaterako, nahi adina kontzertu ikusi ahal izateko.

14 urterekin sartu zinen arren, orduan ere maila altua beharko zen Tolosako Musika Bandan jotzeko...

Duela 50 urte errazagoa zen bandan sartzea. Gazte gutxiagok ikasten zuten musika. 9 urterekin hasi nintzen solfeoa ikasten Ignazio Mokoroa eta Salustiano Bazarekin. Beraiek eskolak ematen zizkiguten eta guk, trukean, parrokiko elizkizun guztietan kantatu behar izaten genuen. Ondoren, kontserbatorioan klarinete karrera egin nuen.

Pasa al zitzaizun burutik zuzendari izatea?

Ez. Klarinete jolea besterik ez nintzen, 1982. urtean inguruan zuzendariorde izendatu ninduten arte. Handik urtebetera, Bona zuzendaria hil eta behin-behineko zuzendari izatera pasa nintzen gaur arte.

Aldaketa handia izan al zen musikari izatetik zuzendari izatera pasatzea?

Bai. Gainera, nik ez nekien zuzentzen. Garai hartan kontserbatorioan zuzendari ikasketarik ez zegoenez, abesbatzen federazioaren ikastaro batzuetan izena eman nuen. Abesbatzako zuzendari izateko ikastaroak ziren, baina, lagungarri izan zitzaizkidan. Gero, kanpora atera nintzen orkestra zuzendari ikastaroak egitera.

Zuzendu zenuen lehen emanaldian urdurizango zinen...

Oso urduri. Pentsa, lehen emanaldia zer, eta San Joan kontzertua izan zen. Ezagun batzuek aipatu zidaten oso urduri nabaritu nindutela. Egongo ez nintzen ba?

Asko aldatu al da musikari kopurua?

Garai hartan 30-35 bat izango ziren. Gaur egun 50 inguru. Besteak beste, hari-instrumentu gehiago ditugu orain.

Erabat osatuta dago?

Tronpa eta tuba gehiago izan nahiko genituzke. Ez dago instrumentu horiek ikasten dituen gazte askorik.

Baina harrobi emankorra duzue...

Bai, 400 ikasle baino gehiago ditugu. Hori bai, musika ez ezik kirolak, ikasketak... ere egin behar dituzte. Ondorioz, askok musika utzi behar izaten dute.

Bitxia da pop, dance... musiken aroan bandak gazte asko erakartzea.

Ez da beren musika estilorik gustukoena, baina, bandak taldean jotzeko aukera ematen die. Elkarrekin jo ahal izateak asko motibatzen ditu gazteak.

Gerturatzan al dira herritarrek ban-

daren kontzertuetara?

Oso gutxi. Tolosa ez da askotan aipatzen den 'hiri musikala'. Oro har, bandaren kontzertuek ez dituzte masak erakartzen. Emanaldi tradizioletara soilik joaten da jendea: kalejiretara eta abar. Herritarrek ez dute musika kulturarik. Jendea musika entzuten erakutsi beharko litzaiok. Abesbatza Lehiaketaren atariko kontzertuan 40-50 lagun bakarrik bildu ginen. Tamalgarria da.

Egin duzun zertaz zaude harroen?

Bandaren soina asko hobetu da hasi nintzenetik. Horretan zerkusi zuzena du musikarien prestakuntza hobea. Garai batean, akademian erabiltzen ziren instrumentuak oso zaharrak ziren eta musikariek ez zituzten handik ateratzen. Orain, berriz, jendeak instrumentuak etxera eramaten ditu entsegu eta entsegu artean praktikatzeko.

Nola ari zara sentitzen azken kontzertuetan?

Ari naiz dagoeneko zirra bereziak sentitzen. Pena emango dit banda uzteak. Ibilbidea bukatzen ari dela onartzen ari naizen heinean konturatzen naiz bandaren falta sumatuko dudala. Txikitatik sentitu dudalako. Jende askori gustatzen zaio musika, baina niretzat banda hori baino gehiago da.

Erretiratu ostean ere musikak garrantzia izango du zure bizitzan...

Orain arte bezala, kontzertu askotara joango naiz. Baita lanaren ondorioz galtzen nituenetara ere. Behingoz, Euskadiko Orkestraren kontzertuetarako bonoa aterako dut.



HITZA

↓ Soslaia

Musikari herrikoa

Tolosar orok ezagutzen du Luis Mari Gartzia Artetxe. Herrikoa eta erabat musikazalea, Mustad-en mekanikari bezala lanean hasi bazen ere, gustuko duen horretatik bizitzeko aukera izan du. Horregatik mantentzen du lehen eguneko ilusioa mende erdi lan berean pasa eta gero. Bandan ez ezik, bere saxo eta klarinete doinuak Alcoyano eta Poca Tripa txarantetan eta hainbat festa-taldetan entzunarazi izan ditu. Udala Musika Eskolan klarinete irakasle, Abeslari Lagunak, Hodeiartz eta parrokiko abesbatzako kantari eta zuzendari... Sekretu gutxi gordetzen dizkio musikak berari. Aita eta anaia

musikariak izanik, aktore sena ere atera izan du, pailazoekin emandako kontzertu batean zuzentzeari utzi eta kainabera batetik zintzilik zegoen txorizo muturraren atzetik korrika abiatu zenean legez. Emanaldietan duen seriotasun eta zorrotasunak xamurtasunari ematen diote bidea bere oroitzapenez hitz egitean. Musikariek ere ahalegintzen da zorrotzgia ez izaten. Ongi baitaki 8 ordu lanean pasa eta gero «(ia boluntarioki)» joaten direla entseguetara. Ahalik eta kontzertu gehienetara joaten da, eta egunero ateratzen du kiroldegira joateko denbora. Musikari onek odolean darama-telako martxa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Aritz Murua abaltzisketarrak hamar urte ditu, eta Euskadiko Kart Txapelketan hirugarren postua eskuratu du. Txiki-txikitatik gustuko ditu abiadura eta gasolina usaina.

Gasolina usainak erakarrita

Eneritz Maiz Abaltzisketa

Aritz Murua Agirrerri (Abaltzisketa, 2001) txiki-txikitatik gustatzen zaio gasolina usaina eta abiadura. Hamar urte ditu, eta Abaltzisketako Txalburu eskolan ari da ikasketak egiten. Futbolean eta pilotan jolastea gustatzen zaio, baina bere adineko haurrengandik bereizten duen afizio bat du: iaztik hasita, kart edo auto txikien lasterketan parte hartzen du.

Lehen denboraldia izan badu ere, emaitza bikainak eskuratu ditu Abaltzisketako gaztetxoak. Euskadiko txapelketan hirugarren postua eskuratu du, eta Nafarroako Ipar Karting txapelketan lehen postua eskuratu du. Aitak onartzen du, neurri handi batean berarengatik datorkiola autoekiko afizioa. Bera lasterketarako autoak preparatzen ibilia da. Abaltzisketatik asko jaisten direla kontatu du Amezketako Jose Karrerarengana. Bertan, txiki-txikitatik ikusi izan ditu kart autoak, eta aitak, autoen artean ibiltzen zela gogoratu du.

Bizikletatik motorrera

Bizikletan ibiltzen ikastearekin batera, motor gainean ibiltzen hasi zen Aritz Murua. «Bizilagunak motorzaleak ditugu, eta bizikletan ibiltzen ikastearekin batera, hiru urte zituela, lau gurgpileko motorra utzi zioten Aritzi. Hura menperatzean, bi gurgpileko motorra pasa zen sei urterekin», gogoratu du Larraitx Agirre amak. Gasolina usaina txikitatik izan du inguruan.

Olaberriako Karting zirkuituan sozio eginak daude. Bertan, Olaberria Karting Series egiten dute, eta iazko udaran parte hartu zuen lehen aldiz, ezustekoa emanez: lasterketa irabazi zuen Aritz Murua.

Emaitza onak ikusita, berotu egin ziren, eta kart berria erosi zuten, lasterketetan parte hartzeko.



Lasterketa bakoitzean kart autoari lau gurgpilek berriak jarri behar izaten dizkiote. E. MAIZ

Urte hasieran federatu zen lehen aldiz.

Bederatzi urtetik hamaika urte bitarteko kategorian parte hartu du, alebilen mailan. Federazioak egutegi bat dauka, eta Euskadiko Txapelketan 11 lasterketa egiten dituzte; Bizkaian Gueñesen, Burgozen Villarcallon, Nafarroan Los Arcosen, eta Gipuzkoan Olaberri. Lasterketa bat, Zumarragako kaleetan izan da.

Lasterketetan, 100 kilometro orduko abiadura hartzera iritsiko direla azaldu du Aitor Murua aitak. Lasterketa bakoitzean 12 bueltako bi itzuli egin behar izaten dituzte. Aritz Murua «erraza» dela dio lasterketetan ibiltzea. Hasieran beldur pixka bat bai, baina beldurra baino gehiago urduritasuna izaten duela azaldu du. Bihurgutetan, balazta zenbat eta beranduago zapaldu, orduan eta azkarrago doa autoa, eta horretara bultzatzen dituzte. Hori egiteko, ordea, «ausartak» izan

behar dira. Batzuetan «gogorra» ere egiten zaiola onartu du gazteak. «Ordu asko izaten dira, eta kontzentratuta egon behar izaten du», gaineratu du aitak.

Ordu pila bat sartu behar dira ikasten joateko. Olaberri eta Los Arcosen asko ibili da urtean zehar entrenatzen. «Los Arcosen esaterako goiz batean 500 itzuli ematera iritsitako egunak izan ditu», azaldu du aitak. Espirit Taldeko Mikel Nazabal du irakaslea, eta lehen urtean asko lagundu diote. Eta Jose Karreraren lasterketetik esperientziak babes handia eman die, eta baita mekaniko bezala ere.

Afizio garestia aukeratu du, eta guztia poltsikotik jarri behar izaten dute. Familia osoak onartu du hori, «eta zenbat eta gorago joan, orduan eta garestiagoa da», gaineratu du aitak. Kart autoaren mantenimenduak lan handia eskatzen du, eta lasterketa bakoitzerako prestatu behar izaten

dute. Lau gurgpilek ere berriak jartzen dizkiote. «Buzoa, kaskoa, lepokoa, sahietsak babestekoa, oinetakoak... jantzen ditut», azaldu du Aritz Murua. Legeak horrela eskatzen du, eta lasterketa guztietan kontrolatzen diete.

Lagunek zer esaten dioten galdetuz, «ezer ere ez» esan du segituan. Hala ere, lagun batzuk izan ditu Olaberriako lasterketetan nola ibiltzen den ikusten.

Zaletasuna asteburura mugatzen dute. Asteazkenean eskola eta eskolaz kanpoko jardueretan ibiltzen da. Hurrengo denboraldiari begira jarrita daude. Hamaika urte beteko dituenek, kategoriaz igo daiteke. Lasterketak auto handiagoarekin egingo litzuzke, eta pilotak berak mailaz igo nahiko luke. Profesional mailan, Vettel gustatzen zaio. Ahaztu gabe, Aritz Murua eskerrak eman nahi dizkie Espirit Taldeko Mikel Nazabali eta Amezketako Jose Karrerari.

Erakusketa, hitzaldia eta sari banaketa Zizurkilgo Liburu Astean

‘Gazte literatura eta teknologia berriak’ hitzaldia eskainiko du Fernando Morillok gaur, 14:30ean

Erredakzioa Zizurkil

Liburuaren astea ari dira ospatzen Zizurkilen, eta asteen zehar, *Babel munduko ipuinak, munduko kulturak* erakusketa Atxulondo kultur etxean dago. Tolosaldeako Migrazio eta Aniztasun Sailarekin batera antolatuta dute.

Bestetik, gaur, *Gazte literatura eta teknologia berriak* hitzaldia izango da Fernando Morillo idazlearen eskutik. 14:30ean Atxulondo kultur etxean izango da, eta DBHko 4. mailako ikasleei zuzendua dago. Bihar, berriz, Teodoro Hernandoena X. Ipuin Lehiaketako Sari banaketa izango da 17:30etik aurrera, Atxulondon.

→ Laburrak

Leku jakinetan abestuko dute larunbat arratsaldean

AMEZKETA › Goizean baserri bazterrean kantuan ibili ostean, Goikoetxeanean bazkalduko dute. Ondoren, aldaketa egin dute eta leku zehatz batzuetan baino ez dute abestuko: 17:15ean Jauregi Txikin; 17:30ean Ergonean; 18:30ean, Kotxetan; 19:00etan plazan, 19:15ean Beltzaren plazan; eta 19:45ean Abaltzisketako bidegurutzean izango dira.

Myriam Ulangaren organo kontzertua izango da bihar

ASTEASU › Bihar, 19:00etan Miryam Ulanga organo jotzaileak kontzertua eskainiko du Asteasuko San Pedro elizan. Besteak beste, *Sonatina dalla Cantata 106, Toccata y fuga en re menor, Toccata, Variacioens sobre un tema vascoeta Suite Jazzique* entzuteko aukera izango da.

130 izan da Egin Dezagun Bidearen zenbaki saritua

AMASA-VILLABONA › Egin Dezagun Bidearen zozketako zenbaki saritua 130 izan da. Irabazleak Lur-Lan baserriarren elkarteak eskainitako produktuz betetako saskia jaso du.

AuPairExcellence

Doako izen-ematea
Arreta pertsonalizatua
Euskaraz, gaztelerez eta ingelesez
Irlandako egonaldiaren jarraipena

info@aupairexcellence.com
www.aupairexcellence.com

Tel.: 0035 386 312 57 42

TXOKOA hitza

HITZAK harpidedunentzat
emanaldi bakoitzerako 2 sarrera pare ditu

Poxpolo eta Konpainia

Abenduak 28 • Asteazkena
16:30ean eta 19:00etan
Tolosaldeko Leidorren

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



Tolosaldeko Etxetxo baserriko Luis Ilarrak biltzen harrapatu dute. HITZA



Berrobiko Teileri baserrian, loreekin lanean. HITZA

Azkoitiko Mokoroa baserrian ogia egiten batetik, eta baratzea ureztatzen, bestetik. HITZA



Aldaba Zahar elkartearen ogia egiten dute. HITZA

Eskuekin erein eta jasotako lana

‘Baserritik Zerkausira’ erakusketa egin du Targazkik; Aranburu jauregian dago jarrita, eta urtarrilaren 21a bitartean egongo da

Jakien ekoizpena bizimodutzat dutenei omenaldi xume bat egin nahi diete

Eneritz Maiz Tolosa

Baserritik Zerkausira erakusketa larunbatero Zerkausian baserriko produktuak saltzen dituzten hainbat ekoizleri egindako erreportajea da. Targarki taldeko 12 lagunek egin duten lehen erakusketa da. 157 argazkiz osatu dute. Taldeko kide bakoitzak argaz-

kilaritza norberaren eran bizitzeko gunea aurkitu duela azaldu dute taldeko kideek. «Helburua dokumentala eta didaktikoa da gehienbat. Azokako erosleei mahaira iristen zaizkien jakien jatorria eta ibilbidea erakutsi nahi diegu, baserritarren lanari merezi dituen garrantzia eta duintasuna emanez».

Erakusketa honen bitartez, omenaldi xume bat egin nahi diete jakien ekoizpena bizimodu egin dutenei.

Baserrietako atekak zabaldu dizkietelako, eskerrak eman nahi dizkiete proiektuan parte hartu duten ekoizleei: Azkoitiko Mokoroa baserria, Tolosaldeko Aldaba Zahar elkarte, Berrobiko Teileri baserria, Anoetako Txabola, Tolosaldeko Etxetxo baserria, eta Ibarra Montes baserria. Era berean, «eskerrik asko laguntza eman diguten erakunde eta enpresei ere», gaineratu dute.

Urtarrilaren 21a bitartean egongo da ikusgai Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era, astelehen eta jai egunetan izan ezik.



Ibarra Montes baserriko negutian barazkiak biltzen ari dira. HITZA



PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Asier Imaz Villabona

Euskadi Irratik *Oilategia* saioa prestatzen ari dela, telefonoa hartu, eta **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariaren galderak erantzuteko tartea hartu du Mikel Pagadizabal *Pagadi*k (Villabona, 1974). Gidoilaria, esataria, aktorea, imitatzailea... eta batek daki zer gehiago, baina hori bai, beti umorea ardatz hartuta.

Abenduaren 11n Azpeitian estreinatu zenuten 'Bodologuak'; orain, etxean tokatzen zaizu. Nola sentitzen zara?

Erantzukizun handia da niretzat, Realak Anoetan jokatzeko duenean bezala da (Barreak).

Baina ez da lehen aldia, 'Xabineitor'ekin ere izan baitzinen.

Duela 10 urte Iraolarekin ere izana naiz. Kanpoan zaudenean, zu telebistakoa zera edo ez dakit zer esaten dizuten, baina Villabonan Arantzaren semea naiz, eta erantzukizuna handiagoa izaten da.

Lehen emanaldietan zer moduzko harrera izaten ari da 'Bodologuak'?

Egia esan harrituta gaude. Entseguetan beldur pixka bat izaten duzu, ea txisteeek funtzionatuko duten eta abar. Azpeitian harrituta geratu ginen, aretoa birritan betetzea lortu bainenuen.

'El club de la comedia'-ren ukitua du antzezlanak, ezta?

Formatua berdina da, nahiz eta guk testuinguru bat jartzen diogun, hau da, ezkontza batetik gero; berandu, auto ilaran egon gara, oraindik jantziekin gaude... eta gero hainbat gaietaz hitz egiten dugu, ezkontzaz gain. Adibidez, txakurraren arropak, eliza, elkarteak, jendea egun nola zainitzen den...

Bakarrizketa horiek, erabat umorean oinarriturik al daude?

Bai, komedia da.

Egoitz Lasa eta Nagore Aranbururekin 'Wazemank'-en eta 'Noaoa'-n ikusi zaitugu. Orain, nondik dator oholtzara elkarrekin igotzeko ideia?

Lanetik kanpo ere nahiko ondo ematen gara, oso ondo pasatzen dugu, eta tarteka bakarrizketak egiteko gogoia genuela aipatu izan genuen. Lanbide bezala inoiz bakarrizketarik egin gabeak gara, tarteka kilometroak jairen alde saio bakan batzuk eginak ditugun arren. Horrela, duela lau hilabete inguru, udan, tes-tuak egiten hasi ginen. Zer edo zer

Mikel Pagadizabal ◊ Antzezlea

'Bodologuak' antzezlanak aurkeztuko du 'Pagadi'k etxean, bihar, Egoitz Lasa eta Nagore Aranbururekin batera. Gurea antzokian bi saio eskainiko dituzte, 20:00etan eta 22:00etan.

«Realak Anoetan jokatzeko duenean bezala aurkitzen naiz»



Nagore Aranburu, Egoitz Lasa eta Mikel Pagadizabal. HITZA

ateratzea zegoela ikusi genuen, eta horrelaxe hasi ginen. Gero, antzerkian ordu asko pasa behar dira elkarrekin, eta harreman normal bat edukitzea ez da nahikoa niretzat. Ondo ematen baldin bazara, askozaz hobe da, eta hori da gure kasua.

Gidoilari lanetan ere, beraz, zuek aritzen zarete.

Bai, eta elkar horrela ezagutu genuen, gainera. *Wazemank*-en eta *Noaoa*-n Nagore izan zen gure koordinatzailea.

Jende askok ez dakien kontua da hori.

Duela zazpi urte hasi ginen lan horretan. Formakuntza ikastaro batzuk egiten Madrilen eta beste hainbat tokitan ibiliak gara, eta lehen esandakoez gain, *Brinkola* telesailean ere aritu izan gara, Telmo Esnal eta *Kixi* Altunarekin. Orain, Irratian Iraolarekin ibiltzen naiz lan horretan, *Oilategian*; beti ikasten.

Antzerki mundua oso ongi ez dagoela irakurri nion Egoitz Lasari.

Ez da erraza, ez. Askok ibili behar dela uste dut, propaganda egiten, eta abar. Gure inguruan, uste dut, jendeak ez duela antzerkiara joateko ohitura handiegirik. Egoera ekonomikoa ere hor dago, eta horrek ere ez du laguntzen toki bat egiterako garaian.

Irratian edo telebistan lan egiteak, lagunduko du propaganda egitekoan, ezta?

Pixka bat bai, baina horrek bi alde dauka: batetik, aurpegi eza-guna izanda, jendea ikustera joaten denean, «ea honek zer egingo duen» dio; eta bestetik, «telebistakoeak ea ze kristo egiten duten» esan dezakete. Ez badute barrerik egiten, «orain ere egin dute», esango dute. Horregatik, Azpeitian oso pozik geratu ginen, jendeak barre asko egin baitzuen.

Antzezlan honetan, imitaziorik egiten al duzu?

Ez, Mikel Pagadiren papera jokatzeko. Ez dago Joxe Manuel eta Anttonirik lan honetan. Gure ikuspegitik idatzi dugu gidoia, eta horrela antzeztzen dugu. Hirurok ezberdinak izan arren, komunean baditugu hainbat puntu, eta azkenean, konpendio polita geratu dela iruditzen zait.

Telebista, irratia eta antzerkia. Zer dauka bakoitzak?

Antzerkiarekin dezente gozatzen dut, jendearekin harreman oso zuzena duzulako. Metro batera dago ikuslea, eta aurpegia aldatzen ikusten duzu, trukorik gabe. Gaizki ateratzen bada, unekoa izaten da. Irratia ere nahiko berehalakoa da, eta eguneroko saioa entrenamendu ona izaten da; gustukoa dut eguneroko lan hori. Telebistak, azkenik, bere alde on

eta txarrak ditu: lan asko izan arren, nahiko azkarra da; esku askotatik pasatzen dira egiten dituzun gauzak, eta ez daukazu horrenbesteko kontrolrik zuek egindakoarekiko. Talde handia izaten gara telebistan: gidoilariak, produktzioa, erreleazioa... Denek dituzte alde onak eta txarrak, baina gehiena ona da.

Eta beti umorea ardatz hartuta.

Komedian espezializatu naiz, nahiko erraz ateratzen zaidalako. Batzuetan kostatzen den arren, aurpegi honekin dramarik ezin dut egin (barreak). Oraingoz errazago ateratzen zait umorea, eta nekatzeko naizenean edo, agian aldatuko dut erregistroz. Oraingoz oso eroso sentitzen naiz.

Kalean, egunerokotasunean, jendea txistean zain gelditzen al zaizu?

Batzutan, horrelako egoerak sortu izan ohi dira. Adibidez, erosketak egitera joan eta «hi, *Pagadi*, zer edo zer egin ezak!», Orduan erantzuna, zera izaten da: «eta hi okina haiz, ezta, ba ogi bat egin ezak!» (Barreak). Baina, pazientzia pixka bat eduki behar da, eta jendea errespetatzen dugu (Barreak).



↓ Fitxa teknikoa

'BODOLOGUAK'

■ **Aktoreak:** Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu.

■ **Non:** Villabonako Gurea antzokian.

■ **Noiz:** Bihar, abenduak 23.

■ **Orduetgia:** 20:00etan eta 22:00etan.

■ **Sarreak:** Aldez aurretik 8 euro: Rboten, Amasa Okindegian eta Amaieur dendan. Egunean bertan, 10 euro.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

■ **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.


Ibarran: Lurdes liburudendan.

Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan, Babel liburudendan eta Elkartasun dendan.

Villabonan: Periodista liburudendan.

■ **HITZAko bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



Patxi Zeberio ◊ Erremontista

Binakako Erremonte Txapelketa irabazi berri du elduaindarrak, eta ondorioz, zazpigarren txapela jantzi du; ilusioz eta animoz beterik, Buruz buruzko Gabonetako Txapelketan ariko da orain.

«Zaleek garaipenekin nola gozaten duten ikustea da handiena»

Iñigo Terradillos Elduain

1995. urteko maiatzaren 27an jokatu zuen estreinako partida profesionalean, Hermaniko Galarreta pilotalekuan. 16 urte igaro dira ordutik, eta hamaika garaipen eskuratu ditu, Binakako Erremonte Txapelketan txapela gehien jantzi dituen pilotaria bilakatu delarik. Azkena, zazpigarrena, iragan larunbatean lortu zuen, Ionekin batera, Juaristi eta Lizaso bikotea mendean hartu ostean.

Nola sentitzen zara garaipen berriaren aurrean?

Oso gustura nago. Urteko txapelketarik garrantzitsuen irabazidugu Ionek eta biok, eta oso pozik sentitzen naiz, animatuta.

Iaz ezin izan zenuten Ionek eta zuk txapela jantzi. Garaipen honekin arantza hori kentzea lortu duzula esan daiteke?

Bai. Pasa den urtean oso txapelketa ona egin genuen, baina ezin izan genuen finala irabazi. Beraz, arantza ateratzea lortu dugu aurtent.

Norentzat da zazpigarren txapela hau?

Emazteari eskaintzen diot, eta baita aurtent jaio zaigun haurrei ere. Aurtengo urtea oso borobila izaten ari da. Kirolariok oso bereziak izaten gara, bereziki txapelketak-eta ditugunean, eta nire kasuan, hori gehien sufritzen duena emaztea izaten da. Horregatik, txapela bat ailegatzen denean, berari eskaintzen diot, nolabaiteko sari bezala, berak ere merezi duelako.

Herritarrengandik zer erantzun jaso duzu?

Kalean tentsio hori ere nabari duzu. Finalerdietan galdezka hasten zaizkizu, eta finalera sailkatzean nabari duzu jendea egun handia iristeko irrikaz dagoela. Finaleko egunean, berri, parekatua izan zenez, guk bezala zaleek ere asko sufritu zuten, baina garaipenarekin guk bezala gozaten eta pozik ikusten dituzu. Aurrekoetan egin moduan, merezi bezala ospatu genuen garaipena. Zaleak herrikoak ez ezik, beste hainbat herritakoak ere bazire-

nez, Elduainean ospatu ordez, erdibideko herri bat aukeratu genuen guztiok elkartzeko. Zaleengandik esker oneko hitzak baino ez ditut, asko animatzen eta babesten nautelako. Familiako kiodeak dira lehenak, egunero hor egoten direnak. Gero koadrila dago, lagunak eta jarraitzaile ugari. Niretzat handiena zaleek nik adina gozaten dutela ikustea da.

Buruz buruko Gabonetako Txapelketa aurkeztu duzue orain.

Eguberrietako egunak baliatuz txapelketa hau antolatuta dute, beste urteetan bezala. Guztira, bost pilotari ariko gara. Urritia eta biok finalerdietan hasiko gara. San Migel eta Urrutia ere lehiatuko dira, eta azkenik, Koteto Ezkurra dago. Honek zuzenean finala jokatuko du, udako txapelketa irabazi zuelako. Urtarrilaren 7an izango da finala. Ilusioz beterik jokatuko dut txapelketa hau. Oso lehia bizia izango da, partida bat

«Iazko finala ezin izan genuen irabazi, eta nolabait arantza ateratzea lortu dut»

«Bereziki emazteari eskaintzen diot txapela, nik adina merezi baitu»

«Egungo mailarekin nagoen bitartean pilotalekuan jarraituko dut»

galduz gero txapelketatik at gertatzen baitzara. Nire kasuan, finalerdia irabazten badut finalera pasako nintzateke Ezkurraren aurka jokatzeko, eta galduz gero etxera. Orain txapelketa hau dut buruan.

Txapelketa batetik atera, eta zuzenean beste batera. Atsedenerako tarterik ez, beraz.

Bai, jendea erakartzeko aldera, urte guztian zehar txapelketa ugari izaten dira. Pilotariok nahiko lanpetuta egoten gara, eta beti txapelketek sortzen duten tentsio

horrekin. Baina, gustura egoteko modukoa da. Eguberrietako txapelketa honetan bezala, jai egunak direnean guk normalean lan izaten ditugu. Baina, egun arruntetan baino jende gehiago bildu ohi da pilotalekuan, eta giro polita sortzen da. Oraingoz, atsedenek ez dut izango, baina urtarrilaren erdialdera edo izango dut egun batzuk hartzeko aukera.

Txapelketa ugari izan eta jendea pilotalekura joatea seinala ona izango da, ezta?

Txapelketetatik at, jendea enpresako partidetara joatea asko kostatzen da, horregatik antolatzen dira txapelketak. Eta txapelketetan zaleek ondo erantzuten dute, enpresa bera bezala, gu pilotariok, gustura gaude.

Binakako Txapelketarekin hasi aurretik ez zinen zure unerik onenean. Egoerari buelta ematea lortu duzula esan daiteke?

Uda amaitzean Buruz buruko Txapelketa galdu nuen, eta gero lesio bat izan nuen. Horrelako lesio bat izatean gorabehera eta zailtasun handiak izaten dituzu. Jorkoa asko jeitsi dela ikusten duzu, eta zure buruari galdetzen diozu lehengo mailara iritsiko ote zaren. Binakako Txapelketan parte hartu ahal nuen ere ez nengoen ziur, baina, lan handia egin dut maila egokira ailegatzeko, eta azkenean parte hartu eta txapela irabazi dut. Horrelako zerbait gertatzean aurreko pena guztiak ahazten zaizkizu segituan. Animoz eta indarrez betetzen zara aurrera begiratu eta ilusioz jarraitzeko.

Luzerako dugu, beraz, Zeberio II.a pilotalekuan?

Luzerako ez dakit. Lesiorik dagoen ala ez ikusi behar da. Egia esan izan dudana azken hori kenduta inoiz ez dut lesio larririk izan, baina hori ez dago jakiterik. Horrez gain, pilotalekuan ematen den maila ikusi behar da. Nire burua maila kaskarrean nabari badut, nik neronek erabakiko dut uztea. Oraingoz, urtebeteko kontratua dut enpresarekin, eta egun dudana mailarekin jarraitu ahal badut jarraituko dut.

◊ ibarraldea@hitza.info



MAIALEN ANDRES

↓ Palmaresa

- **Zazpi aldiz Binakako Txapelketako txapeldun.** 1998 (Aizpurua), 2001 (Iriarte), 2003 (Auzmendi), 2004 (Urrutia), 2005 (Auzmendi), 2009 (Badiola) eta 2011 (Ion).
- **Bi aldiz Banakakoan txapeldun.** 2006an eta 2007.
- **Hiru aldiz Banakakoan txapeldunorde.** 2002, 2008 eta 2009.
- **Hiru aldiz San Fermin Txapelketan garailu.** 2000, 2004 eta 2008.
- **Bi aldiz Gabonetako Txapel-**

ketan txapeldun. 2005 eta 2008.

- **Villa de Huarte Txapelketan garailu.** 2002.
- **Master Pacharan Baines Txapelketan garailu.** 2007.
- **Banakako Masterrean garailu.** 2008 eta 2009.
- **Banakako Masterrean txapeldunorde.** 2000.
- **Binakako Masterrean txapeldunorde.** 2001.
- **San Fermin Txapelketan txapeldunorde.** 2001, 2005 eta 2007.

gabonetan, oparitu
hitza ren jertsea

Helduentzako Jertsea:
lehen **29,5 €**

orain, eskaintza berezia

25 €

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modelokoak
Neurriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

Noiz eta nola egin eskaria?

• TELEFONOZ: 902-82 02 01
• POSTAZ: harpidetza@hitza.info

* Jertsea probatu nahi baduzu, zator HITZAren bulegora

hitza mb



15°
4°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Esna-bidean erakusketaren barruan gaur, Amaia Perales elikaduran adituak *Amaren elikadura edoskitzean* hitzaldia eskainiko du 18:00etan Aranburun.
- **Anoeta.** Gabonetako egitarauaren barruan gaur, 19:00etan Loatzo musika eskolaren kontzertua, elizan.
- **Tolosa.** Iturriza elkarteak antolatutako mus txapelketan izen emateko epea hilaren 26an bukatu da. Elkartearen egoitzara (San Joan kalea, 2-1. solairua) joan behar da 10:00etatik 12:00etara. Mus txapelketa hilaren 28an izango da, 10:30etik aurrera.
- **Autobusak.** Urtarrilaren 7an Bilbo, euskal presoen eskubideen alde egingo duten manifestazioa joateko autobusak antolatu dituzte. Berastegin, Berrobiko eta Elduaingo herriekin batera antolatu dute, eta izena emateko epea hilaren 30an amaituko da. Urepelelkarrean, udaletxean eta udal taldekoiei esanda eman daiteke izena. Tolosan eta Ibarra ohiko lekuetan eman behar da izena. Eta Leaburu eta Gaztelutik aterako den autobusean izena emateko, Leaburukoek 616 84 97 22 telefono zenbakira deitu behar dute, eta Gaztelun, ohiko lekura jo behar da.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Esna-bidean talde-erakusketa urtarrilaren 14a bitarte ikusi ahal da Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Urtarrilaren 21a bitarte *Baserritik Zerkausira* argazki erakusketa ikusi daiteke Aranburu jauregian.

Farmaziak

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Iurtzun.** Mutiolo, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



ATZEAN UTZI DU 50 URTEKO HISTORIA

Atzo hasi ziren botatzen Tolosako Berazubi auzoko Haur Eskola, eta ondoko etxebizitzak. 1960. urteko abuztuaren 11n inauguratu zuten eskola, eta martxa 1961. urteko otsailean jarri zuten. Eraistea

bihar bukatuko dute, eta bien bitartean Martin Jose Iraola etorbidea, eta Kondeaneko Aldapa lotzen dituen oinezkoen pasabidea itxita egongo dela jakinarazi du udalak. E.MAIZ

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurak**

Programazioa

28 KANALA

- 08:30. On ein
- 09:00. Amagabeko istorioa.
- 09:30. Tolosaldean Gaur.
- 10:00. Walker.
- 10:30. Antzerkia.
- 11:00. Antzerkia.
- 11:30. Tolosaldean Gaur.
- 12:00. Erosi eta ikasi.
- 12:30. Berbetan.
- 13:15. Foorfur.
- 13:30. Tolosaldean Gaur.
- 14:00. Walker.
- 14:30. Antzerkia.
- 15:00. Antzerkia.
- 15:30. Tolosaldean Gaur.
- 16:00. Erosi eta ikasi.
- 16:30. Berbetan.
- 17:15. Foorfur.
- 17:30. Tolosaldean Gaur.
- 18:00. Kafe t'ardi.
- 18:30. Gipuzkoa kultura.
- 19:00. Bizitegia.
- 19:30. Tolosaldean Gaur.
- 20:00. Ikusmira.

TXOLARRE IRRATIA

(107,6 edo www.txolarre.org)

- 11:00-12:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia: besteak beste, Tolosako Kirol Galako sari banaketaz ariko dira. ■ 12:00-13:00. Tolosaldeko Ahotza magazina: T Argazki taldeak antolatutako erakusketaz, Errota tabernan Unai Azkaratek jarritakoaz, eta Aranburun dagoen Esna-bideaneko lanez hitz egingo dute. ■ 13:30-14:00. Info 7ko albistegia. ■ 14:00-15:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ 16:00-17:00. Gazte Zaparrada. ■ 17:00-18:00. Kabitik plazara saioa: Egin Deza-gun Bidea ekimenaz hitz egingo dute Iñaki Azkarate eta Haritz Lopezekin. ■ 18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotza magazina eta albistegia. ■ 20:00-20:30. Info 7ko albistegia. ■ 21:00. Berbenin.

**Tolosan erosteak
merezi du**

Tolosa&Co

euskarazko **web guneak** dirulegutzak

BALDINTZAK

Publiko zabalari zuzendua behar du web guneak - Zergak Tolosan pagatzen - Estakoi oso-erak erakundeak izan behar dira

2010ko martxoaren 13a

UDALA

943 65 56 95 www.tolosako.net